



Arartekoaren ebazpena, 2013ko martxoaren 25ekoa. Horren bidez, Lazkaoko Udalari gomendatzen zaio ofizioz baliogabetu ditzala kexagileari bi ibilgailuren gainean bidali zizkioten 2009, 2010, 2011 eta 2012ko ekitaldietako TMIZen ordainagiriak, izan ere, ekitaldi horietan, ibilgailu horien zirkulazio-baimenetan ez zen agertzen Lazkao udalerrria titularraren bizileku gisa.

### Aurrekariak

1. Interesdunak esan du ez dagoela ados Lazkaoko Udalak izandako jarduerarekin. Izan ere, bi ibilgailu horien Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zerga (TMIZ) ordain dezan eskatzen ari zaio, 2009, 2010, 2011 eta 2012ko ekitaldietakoak, kontuan hartuta horien zirkulazio baimenean ez dela jasota egon Lazkao bizitoki gisa. Interesdunak ibilgailu horiek duela 15 urte baino gehiago saldu zituen.

2012ko uztailan Gipuzkoako Ordezkaritzako Probintziako Trafikoko Buruzagitzara joan zen hainbat kudeaketa gauzatze aldera. Une horretan, datu-basea kontsultatzean, langile publikoak jakinarazi zion aspalditik bere izenean zeuden bi ibilgailu zeudela, besterendu izan ziren arren. Datu horiek araztu eta zuzentzeko, aipatu ibilgailuei behin betiko baja emateko eskatu zuen. Behin betiko baja horiek izapidetzeko, langileak izapidetan interesdunaren egungo administrazio helbidea gehitu zuen.

2. Trafikoko erregistroetan baja horren jakinarazpena ikusirik, Lazkaoko Udalak eragindakoari 2009-2012 bitarteko ekitaldietako ordainagiriak bidali zizkion. Udal jarduera horren aurrean, eragindakoak erreklamazio bat aurkeztu zuen eta ez zen onartu. Izan ere, *"Trafikoko Zuzendaritza Nagusiko datu-basean kasuan kasuko kontsultak egin ostean, egiaztatu da ibilgailu horiek haren izenean egon direla 2009. urtetik 2012. urtera arte"*.

Aipatu ebazpenaren aurka berraztertze errekurtsua aurkeztu zuen eta bertan berriro azpimarratu zuen bi ibilgailu horien zirkulazioko baimenean ez zegoela jasota horien titularra Lazkaon bizi zenik. Hala, adierazi du ibilgailuak duela 15 urte baino gehiago saldu zituela, Probintziako Trafikoko Buruzagitzaren datu-basean jasota zegoen moduan. Garai hartan bizi zen herriko udalak izan zuen azken besterentzearen berri.

Tokiko erakunde horrek ibilgailuari zergaren erroldan baja eman zion, kexagileak emandako agirietan agertzen zenez.





Hala ere, Lazkaoko Udalak atzera bota zuen jarritako berraztertze errekurtsoa, errekurtso bati emandako ebazpenaren aurka udalean beste errekurtso bat jartzea egokia ez zela oinarritzat hartuta.

3. Kexak jorratutako gaia ikusirik, erakunde honek Lazkaoko Udalari txosten bat aurkez zezan eskatu zion eta aipatu txostena bidalitako likidazioak berrikusi behar zirela esanez amaitzen zen.

Erantzunean tokiko erakundeak azpimarratu zuen 2012ko ekainean kexagileak Probintziako Trafikoko Buruzagitzaren aurrean sustatu zuen izapidea bi ibilgailuen bajarekin bat zetorrela. Inguruabar hori kontuan hartuta, ondorioztatu zitekeen haren izenean jarraitzen zutela eta, beraz, kexagilea titularra izan zela ordura arte.

Era berean, adierazi zen Gipuzkoako zergen gaineko 2/2005 Foru Arau Orokorrak ezarri duen preskripzio epea 4 urtekoa dela.

Ibilgailuen zirkulazio baimenean jasotako helbidean Lazkaoko Udala ageri ez zela zioen alegazioari dagokionez, aditzera eman zen alegazio hori ez zela onargarria kexagileak ez baitzuen bete 15 eguneko epean etxebizitza aldaketa Trafikon jakinarazteko eginbeharra.

Gainera, hori gutxi balitz, mahai gainean jarri zen kexagilearen arrazoiketa onesteak ekarriko zukeela zerga horren likidazioak ibilgailuetako titularren esku egotea. Hori dela eta, udalerrri horrek ordainagiriaren ordainketa exijitzeko duen eskumena babestu zen, eragindakoa Lazkaon bizi baitzen 1996ko maiatzaren 1etik.

4. Oinarrien funtsari buruz txostenean jasotako arrazoiketa ikusirik –gogoeten atalean jasotakoa, errepikakorra ez izateko-, Lazkaoko Udalari adierazi genion, bi ibilgailu horien zirkulazio baimenean Lazkaon bizi zela jasota ez zegoen bitartean, ez genuela uste udal horrek bidalitako ordainagiriak ordainarazteko eskumena eduki behar zukeenik. Lazkaoko Udalari zegokioken froga elementu hori aurkeztea eta une hartara arte ez zuen egin.
5. Berriki erakunde honetan Lazkaoko Alkatetzaren jakinarazpen bat jaso dugu eta horren bidez aipatu tokiko erakundeak bidalitako txostenetan jasotakoa berretsi du eta Foru Auzitegi Ekonomiko Administratiboak emandako ebazpenari lotu zaio, eragindakoak, aldi berean, erreklamazio ekonomiko administratiboa sustatu baitzuen.





## Gogoetak

1. Kexaren planteamendua jorratu behar dugu, tokiko erakunde honek TMIZ ordain dadin dituen ahalmenei jarraiki.

Horri dagokionez, egokia iruditzen zaigu gogora ekartzea herritarrek botere publikoen jardueren aurrean dituzten bermeen barruan irismen instituzionalaren bermeak daudela, Espainiako Konstituzioaren 54. artikuluan jaso eta agertzen direnak. Esparru horretan Ararteko erakundearen jarduera kokatzen da.

Aldi berean, azpimarratzekoa da gure ordenamendu juridikoak legebiltzarreko ordezkari guztiei ematen dien baliagarritasuna, herri-administrazioen jardueran legaltasunaren babesle diren heinean. Gauzak horrela, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –EAEn erakunde hau sortu eta arautzekoak- zioen azalpenean adierazten duenaren arabera, Arartekoaren eginkizunetako bat administrazioaren kontrolari lotuta dago, herritarrek behar bezalako kudeaketa edukitzeko duten eskubidea babesteko eta legezkontasun printzipioa bermatzeko.

Zehazkiago, lege horren 1.2 artikulua dioenez, herritarrak agintari eta agintaritzagehiegikerietatik eta euskal herri-administrazioen utzikerietatik babestea du xede nagusia.

Aurrekoa adierazita, egokia iruditzen zaigu Lazkaoko Udalaren jardura jorratzea, Ararteko erakundeari esleitutako kontrol-eginkizunen oinarri dagokionez *“herritarrek behar bezalako kudeaketa edukitzeko duten eskubidea babestu eta legezkontasun printzipioa bermatzeko asmoz”*.

2. Lazkaoko Udalak dio kexagileak ibilgailuen araudiko 30.2 artikulua ezartzen dion betebeharra ez duela konplitu, alegia, Trafikon, 15 eguneko epean, zirkulazio baimeneko titularra etxez aldatu dela jakinaraztea. Kontu horri dagokionez, onartu behar dugu -kontuan hartuta jazotako gertaerak nola izan diren eta urte hauetan zehar Trafikoko Agintaritzak ez duela jardun- gutxienez eztabaidagarria dela kexagileari aipatutako manua bete ez duela egoztea, Probintziako Trafikoko Buruzagitzari etxez aldatu zela ez jakinarazteagatik, bada, interesdunaren iritziz, ibilgailuak behar bezala besterendu zituen. Ildo horretan, esan behar da Trafikon bai dagoela jasota ibilgailuetako bat saldu zela. Salmenta hori jakinarazi ondoren, (...)ko udalak ibilgailu horri baja eman zion TMIZen udal erroldan.





Edonola ere, aintzat hartu behar da ez-betetze hipotetiko hori aztertzea eta, hala badagokio, zigortzea Trafikoaren arloko aginpideei dagokiela.

3. Halaber, zehaztu beharra dago Trafikoko Erregistroan eta ibilgailuetako zirkulazio baimenetan jasota dauden datuak zuzentzeko eskumena administrazio horretako organoei besterik ez dagokiela. Zentzu horretan, aintzat hartu behar da, tokiko erakundeak emandako argudioak irakurrita ondorioztatu daitekeenaren arabera, 2009-2012ko ekitaldietan zehar bi ibilgailu horien zirkulazio baimenak ez zirela udal horretan idatziz jasota egon.

Lazkaoko Udaleko idazkari/kontu-hartzaileak eman duen egiaztagiria baieztape hori berretsi du. Bertan, idatziz jasota utzi du 2009ko ekitalditik 2012ko ekitaldira bitartean, ibilgailu horiek ez zeudela kexagilearen izenean TMIZen zerga-erroldean, orain ibilgailu horien TMIZa ordaintzeko eskatzen bada ere.

4. Ez dugu ukatzen egoera bitxia jazo dela. Hala ere, interesdunak nekez sustatuko du Trafikon datu batzuen zuzenketa, ez baitauka besterentzeak behar bezala bete ez direla adierazten duen ebidentziarik. Izan ere, ez du isunik jasotzen eta ezein udalek ez du sartzen TMIZen erroldan.

Gauzak horrela, interesdunak hainbat agiri aurkeztu ditu eta horietan jasota dago (...)ko udalak TMIZen erroldan baja eman ziola azkena saldutako ibilgailuari.

Horri dagokionez, argigarria da tokiko erakunde horrek zerga horren erroldako herri-azalpenetan ibilgailu horiek gehitu ez izana –orain horien TMIZen ordainagiria eskatzen du-.

5. Trafikoko datu-baseen errealitatera egokitzeak ezin ditu izan datu zaharkitu batzuk zuzentzeak dakartzan ondorioak baino gehiago.

Ildo horretan, kontuan hartu behar da datuak arazteko prozedura honen bidez behin betiko baja bakarrik eman daitekeela trafikoko erregistroetan gorabeherarik ez dagoenean, aipatu ibilgailuen inguruan, azken 15 urteetan.

6. Administrazio zuzenbidean legezotasun positiboaren printzipioa bete behar da. Printzipio hori bereziki oinarritzkoa da zergen eremuan.

Horrek esan nahi du herri-administrazioen egintza eta xedapen guztiek, denek salbuespenik gabe, alde zuzeneko lege batean babes egokia eduki behar dutela, egintza eta xedapen horiek emateko botere nahikoa ematen edo





aitortzen diena, administrazioaren jarduketa oro legearen eta zuzenbidearen mende egon behar dela, eta ez dagoela salbuetsitako espaziorik zeinetan administrazioak boterea juridiko eta libre gisa jardun ahal duen. Hala ezarri du EKren 103.1 artikulua. Horren arabera, *“herri-administrazioak objektibotasunez betetzen ditu interes orokorra eta (...) legea eta zuzenbidearekin bat eginez jarduten du”*.

Ez da administrazio jarduketarik horri ihes egin ahal dionik. Horrek esan nahi du arauan berariazko gaikuntza egon behar dela zergaren ordainketa eskatu ahal izateko.

Lazkaoko Udaleko Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko zerga arautzen duen zerga ordenantzak, zerga hori erregulatzen duen foru arauak jasotzen dituen xedapenen oinarriaren inguruan, 1. artikuluan hauxe ezartzen du:

*“1.- Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zerga halakoak diren, bide publikoetatik ibiltzeko gai diren -edozein dela ere haien maila, kategoria, potentzia, gaitasuna eta karga- ibilgailuen titulartasuna zergapetzen duen zuzeneko zerga bat da, ibilgailuaren titularraren bizitoki gisa zirkulazio baimenean jasota dagoen udalerrian eskatzen dena.  
Ordenantza hori aplikatu zaie zirkulazio baimenean Lazkao bizitoki gisa jasota duten ibilgailuei.”*

Tokiko erakunde horri dagokio egiaztatzea ibilgailu horien zirkulazio baimenean Lazkao jasota egon den. Aipatu tokiko erakundeak ez du froga elementu hori aurkeztu.

Horregatik guztiagatik, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak -erakunde hau sortu eta arautzekoak- 11.b) artikuluan xedatutakoaren arabera, honako gomendioa egiten da:

#### Gomendioa

Lazkaoko Udalak ofizioz baliogabetu ditzala kexagileari (...) matrikuladun ibilgailuen inguruan bidalitako 2009, 2010, 2011 eta 2012ko ekitaldietako TMIZen ordainagiriak, izan ere, ekitaldi horietan, ibilgailu horien zirkulazio-baimenetan ez zen agertzen Lazkao udalerrira titularraren bizileku gisa.

